



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/26

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi egin dabe Euskalduna ontziola zaharreko kaietan dagozan elementuen babesagaz daukien konpromisoa**

Joan dan garagarrilaren 5ean egin eban moduan, Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako Batzordeak berretsi egin dau Euskaldunako kaietan dagozan elementuen babesagaz daukan aho bateko konpromisoa.

Alde batetik, Talde Mistoak sustatutako ekimen bat dala eta, Batzarretako sei taldeek aho batez onetsi dabe Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte (IOHLEE-AVPIOP) babestea, “Bilboko Itsasadarra Itsas Museoko bilduma barruan dagon 3 zenbakidun dikea eta “caisson” deritxana zaintzea eta babestea lortzearren egiten ari dan gestinoetan eta esfortuetan”.

Horren ostean, EH Bildu taldeak planteautako Arauz Besteko Proposamena be aho batez onetsi da. Bertan, Espainiako Kultura Ministerioko Ondare Historikoaren Babeserako Zuzendariordetza Nagusiari eskaria egiten jako, Euskalduna Ontziola izandakoaren kaietan dagozan hainbat elementu Kultur Ondasun deklaretako, Monumentu Moltso kategoriagaz. Elementuok 1, 2 eta 3 Kai Lehorrak, itxierako atea edo “caisson” deritxana, Carola Garabia eta Ponpaketa Estazinoa dira. Txusa Padrones EH Bilduko batzordekideak azaldu dauenez, Arauz Besteko Proposamen horrek garagarrilaren 5ean onetsi zana osatzen dau, eta eskumenen ganeko zalantzak argitzen ditu.

Onespen horren aurretik, Javier Puertas Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearen (IOHLEE-AVPIOP) presidenteak, Talde Mistoak eskatuta, Bizkaiko industria ondarearen ganeko balantze zorrotza egin dau. Azaldu dauenez, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondare Zentroak kudeetan dauen eta Euskadiko industria eta Herri Laneko Ondarea osatzen daben elementuak biltzen dituan inbentarioak 2.700 elementu inguru ditu. Kopuru horretatik, ia %40 Bizkaikoa da, eta balorazinoek, horreen artean 240 ingururi legezko babesa emotea proponiduten dabe, inbentarioan sartu daitekezan ondasun moduan. “Une honetan Bizkaian babestutako 70 elementu inguru daukaguz”, azaldu dau IOHLEE-AVPIOPeko presidenteak.

Bere berbaldian, Javier Puertasek, ondarearen legezko babesa elementuen babesa bermatzeko “beharrezko baldintzea” bada be, “ez dala nahikoa” adierazo dau. IOHLEE-AVPIOPetik uste dabe beharrezkoa dala ondarearen ganeko babeserako araubideak eta esku-hartzeko baimenak “Kultur Ondarearen Legearen izpirituagaz eta eukiakaz guztiz lerrokatuta” egotea.

Javier Puertasek aitatu dauen beste gai bat, industria ondarearen museo bat eregi beharra izan da. Taldeen esku-hartzeko txandan, gai horrek EH Bilduren aldeko eretxia jaso dau. Txusa Padrones batzordekideak “bolumen garrantzitsua” eukiko dauen eta “herrialde honek mende bi horreei emoten deutesen kategoria” islatuko dauen museoa sortzeko idea defendidu dau.

Erakunde publikoei jagokenez, Javier Puertasen eretxiz beharrezkoa da erakundeen arteko koordinazioa egotea, eta baita “proaktibitatea eta inplikazioa be epe laburrean, oso garrantzitsuak izan arren desagertzeko arrisku larrian dagozan elementuak kontserbetako”. Holan, talde guztiak animau ditu, gai horren inguruko ekimenak aurkezten eta bultzatzen jarraitzeko.

Osteko bozketakaz bat etorrita, talde guztiek balioan jarri dabe IOHLEE-AVPIOPeko presidentek transmitidutako informazioa. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak onetsi dauen moduan, “ekimen barriei atea zabaltzen deutse”. Modu berean, Eduardo Andrés bozeroale popularra arduratuta agertu da, industria ondareko elementu batzuen kontserbazino egoera txarra dala eta.

Elsa Pamparacuatro Podemos Bizkaia taldeko batzordekidea, bere aldetik Konkordiako Geltokian zentrau da, beste gauza batzuen artean: “Podemos taldetik kontserbetearen alde egiten dogu, %100ean manteniduteko ahalmena daukala uste dogulako”.

Josu Montalban batzordekide sozialistaren eretxiz, agerraldi honek “dana ondo edo txarto egiten ete gabilzan zalantzea sortzen dau”. “Gure gizarteak balioa prezioagaz nahasten dau, eta industriako edozein aurrik balioa galtzen dau, prezio bilakatzeko”, adierazo dau. Jane Eyre Urkieta batzordekide sozialistak, bere aldetik, alkarteak egiten dauen beharra aintzatesteaz gain, lankidetzan beharrean jarraitzera gonbidatu ditu bertako kideak.

NOTA DE PRENSA

26/09/18

## **Las Juntas Generales de Bizkaia reiteran su compromiso con la protección de los elementos que se encuentran en los muelles del antiguo astillero Euskalduna**

Como ya hizo el pasado 5 de julio, la Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha vuelto a reiterar su compromiso unánime con la protección de los distintos elementos que se encuentran en los muelles del Euskalduna.

Por un lado, consecuencia de una iniciativa promovida por el Grupo Mixto, los seis grupos junteros han manifestado unánimemente su apoyo a la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (AVPIOP), “en las gestiones y esfuerzos que viene realizando para promover y garantizar la protección y conservación del dique nº 3 y el caisson que forma parte de la colección del Museo Marítimo Ría de Bilbao”.

Seguidamente todos los grupos han aprobado, también por unanimidad, una Proposición No de Norma planteada por el grupo EH Bildu en la que se insta a la Subdirección General de Protección del Patrimonio Histórico del Ministerio de Cultura español a que declare Patrimonio Cultural con la categoría de Conjunto Monumental los Diques Secos 1, 2 y 3, el portón de cierre o Caisson, la Grúa Carola y la Estación de Bombeo. Según ha explicado la apoderada de EH Bildu, Txusa Padrones, esta PNN complementa la ya aprobada el 5 de julio y resuelve dudas competenciales.

Previo a estas aprobaciones, el presidente de la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (AVPIOP), Javier Puertas, ha realizado, a petición del Grupo Mixto, un detallado balance sobre el patrimonio industrial de Bizkaia. Tal y como ha explicado, actualmente el inventario, gestionado por el Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, que recoge los elementos que conforman el patrimonio industrial y de obra pública en Euskadi, contabiliza alrededor de 2.700 elementos. De este total, casi 40% corresponde a Bizkaia, y de todos ellos las valoraciones proponen la protección legal como bienes inventariables de, aproximadamente, 240. “En este momento estamos en Bizkaia con unos 70 elementos protegidos”, ha explicado el presidente de AVPIOP.

En su intervención, Javier Puertas, ha manifestado que si bien la protección legal del patrimonio es “condición necesaria” para garantizar la protección de los elementos, “no es suficiente”. Desde la AVPIOP consideran necesario que la redacción de los regímenes de protección y las autorizaciones de intervención sobre el patrimonio protegido estén “escrupulosamente alineadas con el espíritu y contenidos de la Ley de Patrimonio Cultural”.

Otro de los asuntos en los que ha recalado el compareciente ha sido en la necesidad de construir un museo dedicado al patrimonio industrial. Un asunto que, en el turno de intervención de los grupos, ha recibido el apoyo de EH Bildu. La apoderada Txusa Padrones ha defendido la idea de crear un museo que tenga “un volumen importante” y que refleje “la categoría que este país da a esos dos siglos”.

En relación a las instituciones públicas, Javier Puertas ha hecho hincapié en la necesidad de exista coordinación institucional, así como “proactividad e implicación en el corto plazo para la preservación de aquellos elementos sobresalientes pero que corren un grave riesgo de desaparición”. En este sentido ha animado a todos los grupos a seguir presentando y apoyando iniciativas en torno a este tema.

En concordancia con las votaciones posteriores, todos los grupos han puesto en valor la información transmitida por el presidente de AVPIOP, la cual, como ha admitido el portavoz del Grupo Mixto Arturo Aldecoa, “abre la puerta a nuevas iniciativas”. En la misma línea el apoderado popular Eduardo Andrés ha mostrado su preocupación por la escasa conservación de algunos elementos del patrimonio industrial.

Por su parte la apoderada de Podemos Bizkaia, Elsa Pamparacuatro, ha puesto el foco, entre otras cosas, en la Estación de la Concordia: “Desde Podemos abogamos porque se mantenga, ya que creemos que creemos que tiene capacidad para mantenerse al 100%”.

Para el apoderado socialista, Josu Montalban, esta comparecencia “genera la inquietud de si estamos haciendo todo bien o mal”. “Nuestra sociedad confunde valor con precio y cualquier ruina industrial pierde su valor para convertirlo en precio”, ha manifestado. La apodera nacionalista Jane Eyre Urkieta, por su parte, además de reconocer la labor que realiza la asociación, les ha invitado a seguir trabajando de manera colaborativa.